

100hitz euro

ONDOKO MUNDUA (1.saria)

Aske naiz, isilpean, irria begietan ilusio lainoetan itsututa amildegi ertzean. Pausu bat emanda banoa, pausu bat emanda agur ametsei, pausu bat emanda zure ondora noa, ze hurrun eta ze gertu aldi berean 1000km-k banatzen gaituzten aldi berean, zugandik 1cm-tara nago. Bi mundutan zure alboan, bi mundu oso ezberdinak, bat nire gustokoa eta bestea etorkizunaren gustokoa. Nire gorpua kolokan dago, haizeak igurtzen du. Poliki-poliki igurtzen du nire ilea, laztanduz, zuk momenturen batean egin izan zenidan moduan eta poliki-poliki gero eta gehio, gero eta gehio. Behera noa, amildegirantz, mundu honetatik atera nahian. Begiak ireki ditut eta berriro ere izarapean naiz.

Olatz Arregi

Beste mundu bateko kexak

(2.saria)

Irakurle agurgarriak:

Ipuinetako munduko otsoek, hainbat kexa dauzkagu zuei komentatzeko: Kokoteraino gaude gu, ipuineko pertsonaia gaiztoa izateaz. Beste ipuinetako animalien eskubideak nahi ditugu. Kexak betetzen ez badituzue, preso ditugun amonei gauza txarrak gertatuko zaizkie. Lehenik eta behin, gu gaiztoak garen liburu guztiak erre nahi ditugu. Bigarrenik, karameluzko etxe bat nahi dugu otso bakoitzarentzat. Ondoren, adreiluzko etxeak debekatu. Geroago, gure Charles Txakur idazleak egindako "Otso gorritxu" liburua partekatu. Azkenik, txerriak eta amonak egunero jateko nahi ditugu.

PD: Kexa hauek serio hartzea espero dugu, beteko ez balira, zuen amonak arriskuan egongo lirateke.

Gose ona izan, ipuinetako otsoen kuadrilla.

Julen Sánchez

ITZALA

Itzala gaua bezain iluna, ikatza bezain beltza eta bakardadea bezain beldurgarria . Argiaren ondorioa da, baina argirik ez bere baitan. Itzal bat. Silueta bat . Ikusten ez dugun argia. Ezin jarraitu, baina berak zuri bai.

Denoi egokitzen zaigu. Itzalean sentitu gara noizbait. Behin gutxienez. Bakardadea. Hain gauza lasaia eta tristea aldi berean. Inork ez du nahi bakarrik egon bizitzan, baina inoiz, sentitu dugu. Itzal bihurtua, itzalak bakarrik, ezer gehiagorik ez.

Beste batzuetan, berriz, itzal bihurtu nahi izango genuke, itzalean desagertu, iluntasunean dagoen kolorea bezala galdu. Horretarako behar ditugu itzalak, aldi berean, babesteko, gaizki gaudenean desagertzeko, baina horrek ere, mina egin dezake.

ALBA MEDINA

MAITASUNA

Hau idazten dizut ez dakidalako pertsonalki nola esan. Hau idazten dizut, zuri demostratzeko sentitzen dudana. Lehen aldiz ikusi zintudanean, sabelean zerbait nabaritu nuen, eta ez zen gosea. Lehen aldiz ikusterakoan, dardarak sentitu nituen; begi marroi polit horiek ikusterakoan, ezagutzen ez nituen beste gauza batzuk sentitu arazi zidaten. Zure ahotsa entzuterakoan, egiten ari naizena uzten dut zu entzun ahal izateko. Otsailak 2tik jakin nuen zurekin egongo nintzela, nahiz lagunak izan, nahiz zerbait gehiago izan.

Eskerrik asko ZU izateagatik, eskerrik asko mimatzeagatik eta nire momentu zailenetan nirekin egoteagatik. Nahi dut zu jakitea maite zaitudala, zurekin egongo naizela azken egun arte.

Amaiur Torra

INFERNUKO EGUNA

Goizeko 8:00ak! Ohetik jaiki, esnea hartu, jantzi eta korrika atera naiz etxetik. Klasean sartzerakoan denak barrezka hasi dira. Soberan dagoen aulkian eseri eta ondoko mutilak kamiseta alderantziz jantzita eta esnez zikinduta daukadala esan dit. Klasea bukatu eta patiora noala eskaileretatik erori naiz zerraldo, jarraian norbaitek sudur puntan baloikada bat ematen dit. Ondoren irakaslea arbelera atera eta ideik ez nuenez, bisita-gelara bidali nau. Eguna bukatzeko, aulkitik erori eta ondoko mutilari ostikada bat eman diot. Ezin dut gehiago, lotsaz hiltzen ari naiz. Tik-tak entzuten dut, begiak ireki eta iratzargailua itzali. Dena amets bat izan da, orain dator infernuko eguna.

Arrate Fernández

UDABERRITXO

Udaberria hasia da, goiz goizetik zelaiko txori guztiak kantari txio-txioka hasten diren garaia. Eguzkia neguak utzitako elurra urtzera dator. Mendi gailurreko lore polit eta distiratsuenari aspaldian ikusi ezinik egon den ama itzuli zaio, bere eguzki maitea, bera hotzetik babestera etorri zaio, neguko hotzak kentzera eta bere bizi motza elurpean estalia galdu ez dadin.

Bere izpi goxoekin lorea besarkatu du eta lore ederrak itxoiten egon den salbazioa lortu du. Eguzkiaren laguntza edukita, gorantz eta gorantz egin du zerua existituko ez balitz bezala. Lore politak bere petalo guztiak kolore deigarriaz margotzeaz arduratu da, eta orain gailurreko lore ederrena eta maitatuena da.

Enaitz Aginagalde

HEMEN NAIZ AZKENEAN

Hemen naiz azkenean, bederatzi hilabete luze igaro ditut leku ilun batean. Baina azkenean hemen naiz, argia ikus dezaket. Ez dut ezer ulertzen, ni bakarrik negarrez hasi naiz. Emakume batek besotan hartu nau, eta nire amaren besoetan jarri nau. Bere ahotsa ondo ezagutzen dut. Ongi etorria eman dit, masailetatik malko bat irristatzen zaion bitartean. Zoriontsu dago, ez zaio irribarrea aurpegitik desagertzen, eta hori ni zoriontsu egiten nau.

Ondoren gizon batek eskuetan hartu nau, nire aita da, oso goxo begiratzen nau, bere altxorra preziatua izango banintz bezalaxe, oso gustura sentitzen naiz bere besoan artean. Hemen naiz azkenean, mundu ederrean.

Saioa Arrizabalaga

Hiru lagun Hiru izeneko planeta

Bazen behin, Xilebo izeneko gizona Hiru izeneko planetan bizi zena, beste bi gizonekin . Jabea eta Lalokse, Xileboren etsai amorratuak ziren. Bata bestea zirikatzen ibiltzen ziren . Behin Xilebo nazkaturik zegoen beraiekin, eta orduan planetatik alde egin zuen beste planeta baten bila. Planeta berriaren izena Zazpi zen. Han lasai bizitzeko aukera izango zuen!

Baina egun batzuk igaro ala Jabea eta Lalokse, Xileboren falta sumatu zuten eta bere bila joan ziren. Aurkitu zuten azkenean bi bihurriek Xilebo, eta berarekin hizketan hasi ziren barkamenaren eske, lehen zirikatzen zutelako. Lagunak egin ondoren, guztiak Hiru izeneko planetara joan ziren.

IKER MAIZTEGI

MAHAIA

Bizitza ez daukadala esaten didate, bakarrik pisua jartzeko egitura naizela, ikusezina.

Egunetik egunera zama mordoa jasan behar izaten nuen, horretarako balio nuen eta.

Baina ni ez nintzen horrelakoa, nik mundua ezagutu nahi nuen: dendetatik, eskoletatik eta etxeetatik atera beste zerbait egin.

Ez nintzen indartsua, ahula bai, ezin nuen zama handirik jasan, ez nuen balio neure lanerako.

Nik neuk plan bat asmatu nuen ihes egiteko, zaldiak bezala mendian lasterka ibiltzeko, arrainak bezala uretan igeri egiteko.

Horrela nahi nuen neure bizitza eta horrela izan zen.

Gaua zen, nire jabea zaborra botatzera jaitsi zen eta atea zabalik zegoen bertan ikusi nuen nire aukera.

IRATI BLANCO